



JARRAIBIDEA, 2026KO IRAILAREN 16 EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ALDI BATERAKO EZINTASUN-EGOERAN EDO ANTZEKO EGOERAN EGOTEAGATIK ABUZTUAN HARTU GABEKO OPORRAK HARTZEKO FUNTZIONARIOEI APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK ZEHAZTEN DITUENA.

252/2025 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa onartzen duena. 27. artikuluan honako hau ezartzen du:

27. artikulua.– Oporrak.

Irakasle funtzionarioek hogeita bi egun baliouduneko oporraldi ordaindua hartzeko eskubidea izango dute. Aldi hori zerbitzuak eman diren ikasturte oso bakoitzeko aplikatuko da. Lan egindako egunek ikasturte osoa hartzen ez badute, ordaindutako oporrak lan egindako denboraren proportzioan zehaztuko dira. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, larunbatak ez dira egun baliouduntzat hartuko.

Oporraldi hori urte bakoitzeko abuztuan hartuko da. Funtzionarioak aldi baterako ezintasun-egoeran edo antzeko egoeran egoteagatik hilabete horretan hartu ez diren oporrak etenik gabe hartuko dira egoera hori amaitu eta berehala, dagozkion egunetan. Nolanahi ere, oporrak hartzeko eskubidea baliatzeko abuztuko opor-egunak zenbatu behar ziren egunetik gehienez ere 18 hilabeteko epea izango da. 18 hilabete igaro ondoren, eskubide hori bertan behera geratuko da.

EPOEk hau dio 50. artikuluan:

50. artikulua. Funtzionario publikoen oporrak.

3. Funtzionario publikoen urteko oporraldi ordaindua ezin da ordezkatu zenbateko ekonomiko batekin.

Beraz, aldi baterako ezintasun-egoeran edo antzeko egoeran egoteagatik abuztuan hartu gabeko eta sortutako oporrak aipatutako egoera amaitu eta berehala hartu beharko dira, etenik gabe, dagozkion egunetan.

Opor-egunak berehala baliatzea eta zerbitzuak behar bezala funtzionatzea bermatzeko, interesdunak behin alta medikoa jasota, gehienez ere 24 orduko epean, Tramitagune Hezkuntzaren bidez eskaria egin beharko du; adieraziz, etenik gabe, sortutako eta hartu gabeko opor-egunak baliatu nahi dituela, lanera opor egunak baliatu ondoren itzultzeko.

Vitoria-Gasteizen, instrukzioa sinatzen den egunean.

Unai Nieto Marijuan

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

